17

Ibilbide motza

PR-A 67

PUERTO NUEVORAKO IBILBIDEA

Seinaleztapena

Ibilbidearen jarraipena

Norabide aldaketa

Norabide okerra



ARABAKO MENDIALDEKO ibilbide motzen sarea

FITXA TEKNIKOA

Distantzia	2,6 km
Denbora	1h 00’
Zailtasuna	Erreza
Ibilbide mota	Zeharkakoa

Ibilbide labur honek Puerto Nuevo izeneko mendatera darama. Mendate hori haraneko antzinako biztanleek igarobide gisa erabiltzen zuten mendira, luberrietara eta larreetara joateko, bai eta Iturrieta herriarekin komunikatzeko ere.

DESKRIBAPENA

URIBARRI-HARANA. Elizako plazatik hasita, kale Nagusiko tartea jaisten da. Errepidea gurutzatu ondoren, Andra Mari kaletik jo behar da. Metro gutxira, izen bereko ermita polita dago. Eliza erromaniko horren ezaugarriak honako hauek dira: abside erdi zirkularra eta xake itxurako erdi-puntuko arkua (1)

Hortik aurrera, pista legarrezkoa da eta, geroago, Llanos de Andramaria izeneko tokia zeharkatzen du. Bidaztiak zuzen jarraitu behar du pista nagusitik iparralderantz, ezkerrerako eta eskuinerako hainbat bide atzean utzita. Apuka-apurka bidea mendi-hegalera hurbilduz doa. Asintxaspi ureztaketa-putzutik gertu txerri-granja bat dago. Horren ondoan, gurutzatu beharreko burdinazko langa bat dago (2). Abiapuntutik 1,5 kilometro ibili ondoren, altitudea 900 metrokoa da.

Langa gurutzatu eta gutxira iturburu bat dago bidearen eskuinaldean. Hortik aurrera, bidea pagadi batean barneratzen da eta benetako igoera hasten da. Bidea malkartsuago egiten da mendirantz igotzen doan heinean. Zati horretan, basoa eta lursail irekiak txandakatzen dira.

Handik 400 metrora, bidea bitan banatzen da, ezkerraldean adar bat sortzen delarik. Bidaztiak bide nagusitik jo behar du. Duela zenbait urte, bide hori erabiltzen zen Lana ibar nafarra (Gastiain herritik) Opakua mendatearekin lotzeko Puerto Nuevo izeneko pasabidea erabiliz. Pasabideari izen hori eman zitzaion bere ibilbidea zuzendu ondoren, bihurgune pare bat egin baitzitzaizkion mendirako sarbidea hobetzeko xedearekin. Bide zaharraren harri-zoladura zati batzuetan oraindik ere nabaritzen da.

Ezkerrerako bihurgune handi baten ondoren, eta pagadian berriro barneratu baino lehen, ezkerraldean sortzen den bidexka batek pagadiaren barnean kokatutako iturburu hurbil eta fresko batera darama (3).

Bidearen azken herena are ederragoa da; bide-zati hori baso itzaltsuaren gerizpean iragaiten da. Bidaztiak lurraren desnibela gaindi dezake bidearen ezkerraldean dauden eta bideari euskarria ematen dioten harri handiei esker.

Alanbre-hesi bat gurutzatu ondoren, Puerto Nuevorako igoera amaitzen da (4). Puntu horretan, 1.050 metroko altitudean, bideak bat egiten du San Cristóbal mendiaren ondoko beste mendi batean dagoen errepikagailura Iturrietatik igotzen den tokiko errepidearekin.

PROFILA



www.arabakomendialdea.eus

Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Gasteiz - Lizarra errepidea, 7
01110 Santa Cruz de Campezo
(ARABA)
945405424

Eskualdeko turismo bulegoa
Aintzinako Vasco-Navarro Trenaren ibilbide berdearen Interpretazio Zentroa
01128 Antoñana
(ARABA)
945410577

arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA
CUADRILLA DE MONTAÑA ALAVESA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava